



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Parabola. «Celosamente gordea»

1.- Ziklo bat bukatzera doa. Ez dago atzera begiratze-ko astirik, ezta beharrik ere. Plano batean kokaturiko puntu batetik hitz egiten du denborak orain, ia inondik ez ikusteko moduan. Marra bat luza dezakezu haraino, nahiz eta hari fin bat izan, ahots hau, itsaso bete harri edo zirkunstantziek agintzen duten beste edozein salbuespen egoeratan idatziko ez zenukeen esaldi amaigabea. Lokarriak lotu korrika abiatu baino lehen, eta ez ahaztu, korapilo batzuek beste batzuek baino gehiago irauten dute bustitako lurretan, ez dago esan beharrik. Oinazpian pilatutako lur honek ez du atzokoaren antzik. Arnasa, egunak eta euri gehiago falta izan zaio ilunago-tzeko. Hautsez zikindutako leihoetatik begiratuz gero ere nabarmenak dira, as-teak eta hilabeteak, asfaltoak baino gordetzen ez duen zurruntasun itxurako bat, ilargiak eta ondoren zer datorren ikusten uzten ez duten bihurtuneak, urteak eta zalantzak, jasotzerik ez duen ereite antzua. Hondarretan eseri azkenengoz, bolumena eta abiadura egokitu. Gogoratu soinuak garrantzi berezia duela gordetako lekuetan. Ilunetan geratzen zarenean entzuteko beharra are agotu egiten da normalean. Gero zarata bakoitza bereizten ikasi beharra dago. Gero eta alferragoak diren tinpanoen kontrako ezkutuko gerra bat da, enteratzen ez bagara ere, gure muturren aurrean lehertzen dena eguneroko. Oihu isil bat, parabola inperfektua. Erorialdiaren erdian gorantz abiatzen den txorikumearen lehen hego kolpea.

Ziklo bat bukatzera doa. Eguzkiak beste kolore bat hartu du zerumugan. Minutu gutxi batzuk geratzen dira guztiz desagertu aurretik. Atzera kontu hotz bat, iluntzean, gortinak ixtearekin batera zabaltzen diren bi begi. Dena ikusteko, jaio eta itsututa hiltzera kondentatu ta egiak.

2.- Mikrofono baten aurrean esanda-koak ere eraman ditzake haizeak noizbait, norabait. Nahiz eta grabatuta geratu edo denborarekin gezurra zela frogatutzat eman. Hitzek pisua galdu dute, barrutik hustu dizkigutela

zioen duela gutxi beste norbaitek. Mailua, pospolo bat eta karakola. Zer gehiago behar du irla batean iraun nahi duenak aurretik duen denbora zer izango den kontatzeko. Urak betiko estaltzen duen lurrean ere geratuko da denboraren aztarren bat, algaz estalitako grabagailu bat adibidez. Gure azalari begiratzeara baino ez dago nondik gatozen jakiteko. Eguzkiak ekialdetik edo mendebaldetik jo digun ere igartzen da ondo begiratuz gero. Mailua, pospolo bat eta karakola. Plano batean kokaturiko puntu bat. Parabola bat marraztuz goratzen den ahotsa. Hildako haragiari esker bizi diren inguruko hildako guztiak. Egunen batean zuen burmuinetan berpiztuko naiz eta barkamena eskatu beharko diezue zuen jainko ustel guztiei, isilik iraun zenuten minutu bakoitza harri bat izango da zuen kontzientzietan. Urperatzen zareten bitartean, zuen omenez idatzitako bertso lerroak zen-

batuko ditut begi bakarrarekin, behingoz, eguzkiak nire azala erreko duen ardurarik gabe.

3.- Norbait hiltzen denean hasten da jendea testamentuan idatzitakoarekin kezkatzen. Bitartean dortokak arrautzak jartzera noiz etorriko diren itxaroteko esertzen gara hondarretan. Kontu handiz zaintzen dugu eguzkiak lurraren inguruan osatzen duen parabola. Azalari begiratzen diogu bost minutuan behin, gorritzen edo urdintzen hasi den jakiteko. Lezio bat eman nahi diogu aurrez aurre harrotzen zai-gun itsaso mutuari. Soinu neurtua du erori berri den baserriaren krakateko bakoitzak. Egin genezakeen bestelako iraultzaren bat, baina guk, hondarretan esertzea erabaki genuen. Ez dugu ezer utziko zorretan, ez dugu inor orube bati lotuta ahaztuko, marea nola ari den igo-tzen begira geratzeko gero. Baina hori bai, testamentu batean idatzita utzi beharrekoarekin kezkatzen hasten naizen egunean, moztu ezazue nire gorputza zati txikietan eta bota ozeanoaren erdira. Irla batean mailu, pospolo eta karakolarekin bakarrik iraun behar duenak ere izan dezan aitzakia bat, arnasa hartzen jarraitzeko.

4.- Plano batean kokaturiko puntu batetik. Danielen geometria. Robert Desnos.

Planoan kokaturiko puntu batetik perpendikular bakarra pasarazi liteke plano horretara.

Hala diote...

baina nire planaren puntu guztietarik gizaki guztiak pasarazi litezke, lurreko animalia guztiak.

Horregatik dit barregura sortzen zuen perpendikularrak.

Eta ez bakarrik gizakiak eta animaliak baita beste gauza asko ere harrikkak loreak hodeiak aita eta ama oihalomtzi bat labearen hodia eta nahi izanez gero laurehun milioi perpendikular. •



Parabola bat marraztuz goratzen den ahotsa. GAUR8